

Gune ezezagunetan barrena

Descubriendo lo desconocido

Elkartea berriro ere Donostiako Itzuliarekin topo egiten du. 1982. urtean Kresala Elkarteak ibilbide hau martxan jarri zuen eta ondoren, gure CVCE-k, 2007 ean Jesus Mari Alquézar, Casimiro Bengoechea eta Marko Sierraren eskutik iada agortuta zegoen topoguia bat atera zuen aurrera. Iazko abenduak 7 an Udaletxeko arduradunekin batera ibilbide berri bat inauguratu genuen. Udalerriko eremuetatik mugituta eta Gune ezezagunetan barrena izenburuarekin, 50 kmko bidea osatzeko asmoa dugu. Gogoratzen edo leku berriak edo iada ahaztuak ezagutzen joan ginen.

Lehenengo topaketa Arzak jatetxean izan zen abenduak 7 an goizeko 8:30 tan (Miracruz gainan). Udaletxean bukatuta eguardi aldera, itzuliaren panel adierazgarri baten berri emanaz.

El Club se vuelve a reencontrar con la vuelta a Donostia, aquella ruta que por el año 1982 la sociedad Kresala puso en marcha y que posteriormente nuestro Club, en 2007 de la mano de Jesús M^a Alquézar, Casimiro Bengoechea y Marko Sierra volvieron a marcar junto con edición de una ya agotada topoguía. El 7 de diciembre del año anterior inauguramos junto a responsables del Ayuntamiento una nueva ruta, por terreno municipal y bajo el sugerente título de 'Descubriendo lo desconocido', pues se trata de una ruta de 50km que nos permitirá ir recordando y por qué no, descubriendo lugares escondidos o casi olvidados.

La cita de la primera etapa fue el 7 de diciembre a las 8:30 junto al restaurante Arzak, en el alto de Miracruz, para terminar en el Ayuntamiento sobre el mediodía inaugurando un panel ilustrativo de la vuelta.

LEHENENGO ETAPA / PRIMERA ETAPA:

IBILBIDEA / RECORRIDO:

Mirakruz Gaina - Udaletxea / Alto de Miracruz - Ayuntamiento

Irteera:	Mirakruz	Gaina	Salida:	Alto	de	Miracruz			
Iraupena:	11	km	Duración:	11	km				
Desnibelak:	832	m	Desniveles:	832	m				
Distantzia:	4	h	45	min	Distancia:	4	h	45	min
Zailtasuna:		Erreza	Dificultad:		Fácil				

GOMENDIOAK

/

RECOMENDACIONES:

Ohizkoak: mendiko botak, goretex edo txubaskero, txanoa eta eskularruak, jatekoa eta ura.

Las de costumbre: botas, gore o capa de agua o cortavientos, gorro, guantes, algo para picar y agua.

AZALPENA

/

DESCRIPCIÓN:

Etapa honek Donostiako inguru basatienean barrena eramango gaitu. Uliako puntara igo eta Gipuzkoako geografiaren zati handi bat ikusi ondoren, La Plata itsasargira iritsiko gara, leku benetan xarmagarria, Pasaiako portuaren bokale gainean. Ondoren, it saslabarren ondoko bidezidorretatik Saguesera jaitsiko gara eta bidearen azken zatia hiritik egingo dugu: Zurriola pasealekua eta hirian nahitaez ikusi beharreko talaietako bat, hots, Urgull mendia. Udaletxearen ondoan amaituko dugu, Donostiako itzuliaren abiapuntu.

Esta etapa recorre el entorno más salvaje del territorio donostiarra. Ascendiendo primero hasta el punto culminante de Uliá, desde donde se domina una buena parte de la geografía guipuzcoana, la ruta visita el faro de La Plata, lugar de gran encanto sobre la bocana del Puerto de Pasajes y recorre luego los senderos sobre los acantilados para descender finalmente a Sagües y recorrer la última parte de la ruta, ya urbana, por el Paseo de La Zurriola y el Monte Urgull, una de las atalayas de visita imprescindible de la ciudad, terminando junto al Ayuntamiento, punto inicial de la Donostiako Itzulia.

BIGARREN ETAPA / SEGUNDA ETAPA:

IBILBIDEA / RECORRIDO:
Udaletxea - Añorga Txiki / Ayuntamiento - Añorga Txiki

Irteera:	Udaletxea	Salida:	Ayuntamiento
Iraupena:	4 h 30 min	Duración:	4 h 30 min
Desnibelak:	604 m	Desniveles:	604 m
Distantzia:	15 km	Distancia:	15 km
Zailtasuna:	Erreza	Dificultad:	Fácil

GOMENDIOAK / RECOMENDACIONES:

Ohizkoak: mendiko botak, goretex edo txubaskero, txanoa eta eskularruak, jatekoa eta ura.

Las de costumbre: botas, gore o capa de agua o cortavientos, gorro, guantes, algo para picar y agua.

AZALPENA / DESCRIPCIÓN:

Udaletxearen ate ondotik abiatuta, Kontxako pasealekua zeharkatuko dugu, Ondarretaraino, eta Igeldora igoko gara, Kantauri itsasoa noraino zabaltzen den ikusteko. Bertako hirigune bitxia atzean utzita, mendiaren hego mazelatik Igarako erriberara jaitsiko gara, hots, hegoaldeko zuhaitz igel endemikoaren habitat naturalera, eta Usurbilekiko mugara igoko gara, Oria ibaiaren erribera eta Donostialdeako eskualdearen zati handi bat ikusteko talaia ezin hobea. Amaitzeko, Añorgara jaitsiko gara, baserri artean, eta, bidegorria hartuta, Añorga Txikira.

Partiendo de las puertas del edificio del Ayuntamiento recorre el Paseo de La Concha hasta Ondarreta para subir a Igeldo, dando vista a la vasta extensión del Cantábrico. De su pintoresco núcleo urbano se desciende por la ladera Sur a la ribera de Gorga, hábitat natural de la endémica ranita meridional y se asciende luego hasta la muga con Usurbil, magnífica atalaya sobre la ribera del Oria y buena parte de la comarca de Donostialdea. El recorrido termina descendiendo entre caseríos a Añorga y, a través del bidegorri, a Añorga Txiki.

HIRUGARREN ETAPA / **TERCERA ETAPA:**

IBILBIDEA / RECORRIDO:
Añorga Txiki - 27. Poligonoa / Añorga Txiki - Polígono 27

Irteera: Añorga Txiki (Euskotreneko geltokian)	Salida: Añorga Txiki (Estación Euskotren)
Iraupena: 4 h	Duración: 4 h
Desnibelak: 325 m	Desniveles: 325 m
Distantzia: 13,3 km	Distancia: 13,3 km
Zailtasuna: Erreza	Dificultad: Fácil

GOMENDIOAK / RECOMENDACIONES:
Ohizkoak: mendiko botak, goretex edo txubaskero, txanoa eta eskularruak, jatekoa eta ura.
Las de costumbre: botas, gore o capa de agua o cortavientos, gorro, guantes, algo para picar y agua.

AZALPENA / DESCRIPCIÓN:

Añorga Txikitik gora, Miramon parkean sartuko gara, hiriko birika berdeetako batean. Zientzia Museoaren ondotik pasatu eta Oriamendi gainera iritsiko gara. Hernanirekiko muga barrena, Basozabaletik Urumearen ibarrera jaitsiko gara eta, handik, Martutenera joango gara. Ibilbidearen zati honetan, Urumearen goi arroa inguratzen duten mendien ingeradak ikus ditzakegu hodeiartean. Amaitzeko, Antondegi muinora igoko gara, leku benetan harrigarria, industrialdeetatik gertu egon arren landa giroari eusten baitio.

Desde Añorga Txiki se asciende para adentrarse en el Parque de Miramon, uno de los pulmones verdes de la ciudad. Se alcanza la colina de Oriamendi tras pasar junto al Museo de la Ciencia y, recorriendo la muga con Hernani, se desciende por Basozabal hasta la vega del Urumea, para llegar hasta Martutene. En esta parte del recorrido cierran el horizonte las siluetas de los montes que rodean la cuenca alta del Urumea. Se asciende, finalmente, la colina de Antondegi, lugar que sorprende por la conservación de su ambiente rural, pese a la proximidad de los polígonos industriales.

LAUGARREN ETAPA / CUARTA ETAPA:

IBILBIDEA / RECORRIDO:

27. Poligonoa – Mirakruz Gaina / Polígono 27 – Alto de Miracruz

Irteera:	Poligono 27	Salida:	Polígono 27
Iraupena:	4 h	Duración:	4 h
Desnibelak:	708 m	Desniveles:	708 m
Distantzia:	11,5 km	Distancia:	11,5 km
Zailtasuna:	Erreza	Dificultad:	Fácil

GOMENDIOAK / RECOMENDACIONES:

Ohizkoak: mendiko botak, goretex edo txubaskero, txanoa eta eskularruak, jatekoa eta ura.

Las de costumbre: botas, gore o capa de agua o cortavientos, gorro, guantes, algo para picar y agua.

AZALPENA / DESCRIPCIÓN:

Bideak Urumea ibaiaren ibilguaren ondotik meandroetan barrena bokaleraino iristen den zirga bideari jarraitzen dio; ibai paisaiak txundituta utziko gaitu. Loiolan, Ametzagaña parkera igoko gara, gotorlekuraino, eta, ondoren, Molinaorantz jaitsiko gara. Berriz ere gora egingo dugu, Alzara, eta, amaitzeko, Pasaiako portuaren eta bertako kaiaren ondotik, Mirakruz gainera iritsiko gara, hiriaren ekialdeko sarrera naturalera. Etapa honetan, zenbait eraikin berezi ikusi ahal izango ditugu.

La ruta sigue el camino de sirga que, pegado al cauce del río Urumea, recorre sus meandros hacia la desembocadura, sorprendiéndonos con su paisaje fluvial. Se asciende en Loiola al Parque de Ametzagaina, llegando hasta su fuerte para descender luego hacia Molinao y volver a ascender a Alza y, junto al Puerto de Pasajes y su dársena, terminar en el Alto de Miracruz, entrada natural de la ciudad desde el Este. Varios edificios singulares jalonan el recorrido de esta etapa.